

Narratzailearen ahotsa nor den jakitea, benetako thrilerra

Asier Serranok 'Euri gorriaren azpian' (Erein) eleberria aurkeztu du, boterea zer den galderari erantzuna bilatzeko era


JON AGIRRE

DONOSTIA. Hainbat galderak eta zalantzak inguratuta hasi zuen Asier Serrano idazleak 'Euri gorriaren azpian' (Erein) eleberri-proiektua, besteak beste zer den boterea edo zein den liburu bat idaztearen eta argitaratzearen arrazoia. Ondu ahala ez zuen lortzen gainera guztiak kentzea, baina azken emaitza eskuetan zuela pozik eta harro, arantza mingarri bat kendu edo zor itogarri bat kitatu duenaren lasaitasunarekin, agertu zen. «Ulertu nahi dudan hori ulertzeko idazten dut eta hemen biltzen da nire literatura osoa, nire mundua, poesiatik hasita prosara», azaldu zuen.

Boterearen hariari tiraka honek hamaika aurpegi izan ditzakeela nabarmendu zuen, batzue-

tan aldi berean ere: «ekonomikoaren maskarapean, gerra itxuran, multinazionalen diru gose eran, politikarien erotika horren atzean. Nire buruari galdetzen diot zer den boterea, norberaren irrintzitik ateratzen dena. Askotan mutututa dago eta hor jabetu nintzen zergatik ari nintzen idazten. Asetuta geratu nintzen».

Aurkezpenean azaldu zutenek, fikziozko herrian duela 25 urte bete estatu kolpea izan zen eta orain «ustezko demokrazian» bizi dira. Emakume protagonista, idazlea, bertan jaio zen aspaldian eta orain hilzorian dagoen gizon antzezlearen enkargu bat bitarte itzuliko da etxera, sustraietara. «Bidaia horren barruan egiten duen barne bidaia da», azaldu zuen Uxue Razquin Ereingo editoreak. Enkargua zein den jakitea da liburuak duen amuetaiko bat, idazleak «nola borobiltzen» duen bezala edota zein den ahots narratiboa. Horixe da, zehazki, Serranori interesatzen zaiona eta eleberriari thriller ukitua ematen diona, istorioaren narratzailea nor den asmatzeko jola-



Asier Serrano, 'Euri gorriaren azpian' liburuarekin. GORKA ESTRADA

EURI GORRIAREN AZPIAN
ASIER SERRANO

Argitaletxea: Erein.
Orrialdeak: 164.
Prezioa: 19 euro.

sa. «Irakurleak asmatu duen, beretzat nor den, interesatzen zait. Ez nuen liburu itxi bat egin nahi, niretzat sinboloa dena agian beste batentzat ez da», azaldu zuen.

Lehen lerrotik eleberri «kru-dela, latza, bortitza eta lohitsu» dela aurreratu zuen Razquinek, baina era berean Serranok idazterakoan hain bere duen «poetikotasunak» blaitzen duela «sinbolismoz bete» dagoelako, «irudi metaforiko asko eta ondo erabiliekin». Ildo horretan bien arteko oreka «maisuki» lortu duela goraipatu zuen Ereineko editoreak. «Irakurketa hipnotiko egiten du», goratu zuen».